

Enpresa baten funtsezko baliabideetako bat baliabide fisikoak dira eta gure produktuaren elementu garrantzitsuena koltxoiak egiteko behar direnak dira: latexa, malgukiak...

Baliabide intelektualei dagokionez, pertsona bakoitzaren beharrak antzemango dituen sensorea erabiliko dugu. Izan ere, hori baita gure produktuaren puntu garrantzitsuenetako bat.

Hala ere, gure enpresa aurrera ateratzeko giza baliabideak erabiliko ditugu, oso garrantzitsua baita, produktua ondo saldu edo erostarazten lagunduko duen langilea edukitzea. Adibidez, erosleekin komunikatzeko erraztasuna duen norbait.

Azkenik, finantza baliabideak ditugu. Enpresaren egoera ekonomikoa eramango duen pertsona bat edukitzea beharrezkoa da, berak adieraziko digu materialetan eta beste gastuetan erabiltzen dugun diru kantitatea gehiegizkoa den ala ez.